# BARREN

1 9996 otsaiiaren 19a
VIL urtea - 2af. zkia

ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
Idoia Arozena

**ERREPORTAJEA**
Elgoibarko inauteriak argazkitan



**GEHIGARRIA**
Zaharrak berri

**BERBETAN**
Maria Jesus Ferrindez, erlajazio ikastaroko irakasfea




# Negu gorrian butanorik gabe

1 8 urtetik gorako emakumeentzako programa




zetne ametsak proieldu biburtzea,.. zeure Idelak SauzatLea.„ zerefl jaude?

Prograrna

ideia

aso itzazu argh lecV. zule Udaleant Emailumeentzoko Zerbitzu on BEGESAN



**IDOIA AROZENA**

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak heste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Egin dugu

azpi hilabete pasa dira Egin itxi zutenetik. Atzera begiratu, zazpi hilabete hauen errepasoa egiten hasi eta dardara gazi-gozo bat sentitzen dut gorputzean, benetan intensoa izan baita hilabete hauetako martxa. Sekula ez dut ahaztuko egunkaria itxi zuteneko Iehen aste luze eta mingarri hura. Lehenengo eguna gogorra, inpaktantea, gogaikarria izan zen oso: nire bigarren etxea poliziaz josita ikustea, nire gauzetan, intimitatean endredatzen zebiltzala jakitea, a ze nazka!, urteetako gezurrak eta maltzurkerlak lege bihurtzen zirela jasan beharra! Baina are astunagoak eta mila aldiz luzeagoak izan ziren hurrengo egunak, gertatutakoaz konturatzeko denbora asko izan baikenuen. Urteetako lana, bizimodua, ohiturak, egun batetik bestera guzti-guztia hankaz gora, pikutara joan zen. Ohi bezala oheratu ginen; esnatzerakoan, berriz, langabezian zegoen gaizkile taldea ginen. Gizakiok, ordea, bizimodua antolatzeko eta bertora egokitzeko gaitasuna bezain garatua dugu superbibentzia. Baita XXI. mende aurreko gizaki teknologizatu eta anti-naturalok ere. Ardi galduaren izua gainetik kendu eta, hala edo nola, egoera hari aurre egin behar genion. Zapuztutako indarrak batu eta sikiera egunez egun aurrera egiteko balioko zizkiguten helburuak jarri genizkion geure buruari eta "Euskadi Informacion" ez zen bakarra izan, nahiz eta momentu hartan handia eta ederra izan. Bidaia honetan, dena den, ez gara bakarrak izan, ezta gutxiago ere. Euskal herritarren laguntza paregabea izan da eta guztion artean Estatuaren biolentziaren ekintza hura abentura bilakatzea lortu dugu. Hilabete hauetan lagundu duten milaka lagunek zerbait argi ulertu baldin badute zera izan da: auzia ez zela itxitako *Egin* gustukoa zuten ala ez, baizik eta injustizia ikaragarri eta nabari hura guztion aurka egiten zen bidegabekeria zela. Laguntza horri esker, zazpi hilabetera GARA egunkari berria dugu eskuartean. *Egin* izan du abiapuntu, baina egunkari hura gainditu duen proiektua dagoeneko kalean da. Lizarra-Garaziko akordioak zabaldu duen bideak ilusioz bete gaitu, indar berriak eman, esparruak zabaldu. Komunikabideak onerako zein txarrerako sasibotere bihurtu diren gizarte honetan, euskaldunok gure tresnak izan behar ditugu, geure bozeramaile propioak, eta zenbat eta gehiago izan hobe. Elgoibartarrok, egin dugu!

**"Sekula ez dut ahaztuko egunkapia itxi zuteneko lehen aste luze eta mingarri hura"**

Egingo dugu

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
tr 943 74 41 12
Publizitatea:
s̄ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Ainhoa Lodoso |
| KAZETARIAK | Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro |
| PUBLIZITATEA | lvlaitane |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINiSTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Irati AgIrreazaldegi, Ainhoa Andonegi, Aitor Argarato, Idoia Arozena, Madin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorrib, lon Gurrutxaga, KOKOE, lmanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Iñigo Otario, Jon Peli Uriguen, lban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo. |
| AZALIKO ESALDJA | Gotzon Garateren liburutik |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko aurfaritzako Kultura*

fundazioa
fundaci6n

131 DANOBAT

GOITI
GRUPO DANORAT


# ESKUTITZAK

## Gauzek berdin Jarraitzen dute

XXI. mendearen atarian gaude. Badirudi aldaketa garaiak datozela (edo hori sinestarazi nahi digute behintzat). Agintari ekonomiko-politikoek askatasuna, demokrazia eta oinarrizko eskubideen defentsari buruz etengabe hitz egiten dute, gure herriaren etorkizuna jokoan dagoela gogoraraziz.

Bien bitartean, Ertzantzak Gazte Asanbladako kide bat kolpatu, mehatxatu eta atxilotu zuen, harrokeriaz puztuta, besterik gabe identifikatzea eta bere lekutik ez mugitzera derrigortu nahi zuen ertzain bati aurre egiteagatik. Lepoa bihurrituko ziotela esan zioten. Non daude agintarien hitz ederrak, pertsona horren eskubideak? Franco izan zen lehena berak nahi ez zuen orduan eta lekuan kalean ibiltzeagatik susmagarriak atxilotzen. Euri franko egin du harrezkero, eta gauzek berdin jarraitzen dute.

Kaletik, menditik, errepideetatik, komunetatik, nahi dugun moduan eta orduan ibiltzeko eskubidea aldarrikatzen dugu eta baita agintearen zerbitzurako, herria kontrolatzeko eta jipoitzeko sortu diren polizia mota guztiak desagertzea ere.

Elgoibarko Gazte Asanblada

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskulitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak,** NAN eta **telefono zenbakia.**

## KEXAK



• **Bi mutiko etorri dira Elgoibarren oso parke gutxi daudela esateko. "Maa**lako parkia ez dao gaizki baina gure etxetik urruti dao. San Roken zeuden txirristara guztiak kendu ein ditxue eta Plaza Txikiko parkia nahiko kaxkarra da. **Parke gehixo eta hobiak nahi ditxugu".**

• Santa Klara auzoan bizi den mutiko batek kexa hau plazaratu nahi du: "aurreko batean ere adierazi nuen **Santa Klara auzoan pingpongeko mahai bat jartzeko desiatzen gaudela.** Momentuz inork ez digu kasurik egin. Haurtzaindegia izandako eskoletan aterpe bat dago eta leku aproposa izan daiteke pingponeko mahaia jartzeko. Ea norbaitek gure eskaria aintzat hartzen duen!".

• **Mutiko batzuek salatu nahi dute, astearte eguerdian emakume bat zakarrak ibaira botatzen ikusi zutela Errosario kalean.** "Emakume honek ez dauka ingurugiroarekiko inongo errespeturik".

• **Arregitorreko bizilagun batzuek deitu digute Mekanikako ikasleen jarreraz kexatzeko: "Goize**tan gure etxepera etortzen dira eta ingurua zikintzeaz gain, hormetan zulotxoak ere egiten dituzte. Lerro hauen bidez, jarreraz aidatzeko eskatu nahi diegu".

## TXALOAK

• Herriko **emakume batek eskerrak eman nahi dizkio Elgolbarko Udalari "butano** bonbonen eskasia delaeta, hirugarren adinekoekin gogoratu direlako".

• Neska talde bat etorri da **Atxutxiamaika Begirale Taldea** eta **Gurutze Gorriko Astialdi Taldea txalotzeko. "Larunbat** arratsaldean oso ondo pasatu genuen Atxutxikaraokean eta gauean, berriz, Gurutze Gorriak antolatu tako Mozorro Lehiaketa asko gustatu zitzaigun".



*L URTEURRENA*
*1998ko otsailaren 20an, 75 urte zituela hil zen*
*PEDRO ZUBIAURRE SAN MA.RTINen oroimenez*
*L IIRTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 20, arratsaideko 19:00etan.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



*L URTEURRENA*
*1998ko otsailaren 22an, 75 urte zituela hil zen*
*ISIDRO OSORO ARANOren oroimenez*
*L URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

# Iian al du eraginik zuenean butano grebak?



**AINTZANE GARATE**
**43 urte, dendaria**

Oin momentuz ez dakagu falta handirik koinatuak ekarri dialako bonbona bat, baina egoera honek jarraitzen badu, problemak eukiko ditxugu.



**EDUARDO MORALES**
**34 urte, kaldereroa**

Orain hasi gara butano bonbonen bila. Arreba ere ari da saiatzen baina zail xamarra dago. Arazoa latza izan daiteke gauza askotarako behar baita butanoa.



**ADELI SA1Z**
**51 urte, etxekoandrea**

Semea goizeko 6etan joan da San Antolinera butano bila eta goizeko 9ak arte egongo da ilaran zain. Jaurlarlizak edo norbaitek konponbideren bat topatu beharko du.



**ROGELIO VELA**
**62 urte, jubilatua**

Beste egunean, San Antohnen butanorik ez zegoenez, Durangora joan behar izan genuen. Arazoa *ez* bada konpontzen kanpora joan beharko dugu butano bila.



**JUL1 MART1N**
**48 urte, etxekoandrea**

Elgoibarren ez dago butanorik eta arazo handia daukagu sukalderako, dutxarako eta estufarako butanoa behar dugulal«). Udalak zerbait egin beharko luke.



**SANTIAGO AGEA**
**46 urte, langabetua**

San Antolinetik nator eta errotondara arteko jende ilara zegoen. Momentuz nahiko ondo moldatzen ari naiz baina koinata bat su elektrikoa hasi da erabiltzen.


## Txandakako Enpresa Injinerutza

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

### Bilera informatiboa

- **Datorren otsailaren 26an, ostiralean, bilera informatibo bat egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.**
- **18:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.**

**1999/2000 ikasturtea**

• Makina Erremintaren Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

• Tel: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmh.es

g Ordutegia:
08:00-13:00
14:30-17:30

MAKINA ERREAUNTAREN INSTITUTUA
cesi

# ISPILUARI BEGIRA



Of (0¹ ffeae"

TIRO-RIRO tabernakoa

- **Hotza kentzeko edari bat?** Tekila.
- **Elgoibartarrok zer edaten dugu gehien?** Gaztien artian oso modan daude matxakauak.
- **Txikiteroekin ala gazteekin egiten da negozio gehiago?** Txikituaren preziva igo dan arren, bezero fijuak dia txikiteruak, baina gaztiak gehiengua dia.

**Zein musikak erakartzen du jende gehien?** Dudarik gabe bakalao musikak, larunbat arratsaldietan derrigorrez ipini bihar da.

**Inoiz probatu duzun pintxorik onena?** Bilbon jan naban *Foie al Oporto*.

**Eta etxeko espezialitatea?** Txangurro krepak.

**Asteko egunik onena?** Larunbata eta igandia.

- **Tabernari on batek nolakoa behar du izan?** Bezeruak esaten diona egin behar dau eta seriotasuna erakutsi.
- **Nahastuko ez zenituzkeen bi edari?** Baileysa eta Vodka, *Zerebrito* deitzen dan edarixa.

**Tabernaren dekorazioak ba al du zerikusirik?** Dekorazio eta musika onakin beti etorriko dia bezero gehixo.

**Berriz jaioko bazina zer izan nahi zenuke?** Elektronikua, tabernari izan baino Iehenago eduki nuen lanbidea.

- **Sukaldean sartuta egotea ala barra atzean nahiago duzu?** Urte askuan sukaldari buru izan naiz eta nahixo dot sukaldian ibiltzia.
- **Penak kentzeko erremediorik?** Nobixa on bat bilatzia.
- **Urteko jairik gogokoenak?** San Bartolomeak.
- **Afiziorik?** Ehiza.
- **Lehenengo musua noiz eman zizuten?** Aspaldi, oin dala hogei urte edo.
- **Zenbat urte bizi nahiko zenuke?** Ez dakit zenbat aguantatuko dudan, baina beste hogei urte bizitzea gustatuko litzaidake, seme baten zain gaude eta hura aurrera atera arte gutxienez.
- **Gustuko musikari bat?** Ottis Redding.
- **Nor gonbidatuko zenuke kafe bat hartzera?** Elgoibarko presuekin Elgoibarren hartuko nuke gustora kafe bat.
- **Ba al duzu telefono mobilik?** Sei urtez eduki dut, baina oraintxe laga dut, eta lasaiago bizitzeko egin daitekeen gauzarik onena da.



*VII. URTEURRENA*
*1992ko otsailaren 17an, 47 urte zituela hil zen*
*ILIANJO SAN MARTIN OTEGIren oroimenez*
*VII. URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joaterz zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



## • Hondarriniara txangoa Juldiatu Etxearen eskutik

Datorren martxoaren I9an, ostirala, txangoa izango da Hondarribiara Jubilatu Etxeak antolatuta. Irteera goizeko 8:30ean izango da Plaza Handian. Asmoa da Donostiara iritsi eta San Telmo museoa bisitatu ondoren, Hondarribiarantz abiatzea. Bertan San Javier gaztelua ikusiko dute eta eguerdi partera bazkaria izango dute Kaialde jatetxean. Arratsalderako Donostiako Akuarium-era bisitaldia prestatu dute. Joan nahi duen guztiak izena ernan beharko du Jubilatu Etxeko bulegoan goizetan. Txangoaren zenhatekoa 3.000 pta.koa da.

# Udaltzaingoa butano honbonak banatzen

### 65 urte izatea eta bakarrik bizitzea dira baldintzetariko batzuk

Azken asteotan jendea larri dabil bonbona garraiolarien greba dela-eta. Butano beharra duen jendeak biltegietara jo behar izan du autoz butano bonbona etxeraino ekartzeko. Hala ere, badira hainbat pertsona berez bonbona garraiatzeko gai ez direnak. Kasu berezi hauetan Udaltzaingoa arduratuko da banaketaz. Sargentoak esan digunez, "oso -oso kasu berezietan egingo dugu banaketa. Hau da, 65 urtetik gorakoen etxeetara eta familian inork bonbonarik eraman ezin dieten kasuan bakarrik egingo dugu banaketa guk. Herritarrek ez dezatela pentsa udaltzainok beteko dugunik garraiolari papera. Guk, larrialdiko kasuak bakarrik atendituko ditugu, bestela hau kaosa izango Iitzateke". Aipatutako bi baldintzez gain, udaltzainek butano bonbona etxera eramateko, bakarrik bizitzea ezinbesteko baldintza izango da. Ongizate Sailetik aditzera eman digutenez, "egoera honetan dauden herritarrek bi telefono dituzte aukeran eskaerak egiteko: Ongizate Saileko 943 74 10 08 telefonoa eta Udaltzaingoko 943 74 13 94 zenbakia".



# DEBEGESAren *Ideia* programa, ametsak errealitate bihurtzeko bidea

## Irailean jarri zen martxan eta 35 emakume ari dira parte hartzen

Irailean jarri zen martxan DEBEGESAk bultzaturiko *Ideia* programa eta une honetan Deba Barreneko 35 emakume ari dira parte hartzen. Helbururik garrantzitsuenak emakumeei beraien arnetsetako proiektuak aurrera erarnaten laguntzea da. Oraindik ere, nahi duten guztiek aukera dute aipaturiko programan izena eman eta beraien proposamena aurkezteko.

"Itxi begiak, imajinatu, zabaldu begiak, ideia..." da *Ideia* programaren lema eta emakumeei zuzendua dago. Izan ere, Deba Barrenean langabezian dauden %60 emakumezkoak dira. Hori dela eta, 18 urtetik gorako emakume guztiei, beraien bizitzan amestu izan duten proiektua martxan jartzeko aukera eman nahi zaie. Langabetuek, edo lanean egonda ere beraien egoera hobetu nahi dutenek, har dezakete parte, garrantzitsuena amets edo ilusioren bat izatea baita. Gaur egun, 13 emakume eibartar, 5 elgoibartar, Soraluzeko 1, Debako 3, Ermuko 8 eta Mutrikuko 4 ari dira beraien esperientziak eta proposamenak elkarri aurkezten.




**Taiierrak**

Programa hau erabat doan da eta emakumeek erraztasunak izan ditzaten tailerrak antolatu dira hainbat herritan. Mendaroko eta Elgoibarko emakumeek, esate baterako, Elgoibarren bertan dituzte tailerrak.

Interesa duenak, beraz, eta bizitza osoan proiekturen baten atzetik ibili bada, DEBEGESAk Eibarko Rialto zinearen eraikuntzan duen bulegora jo dezake informazio eske edo 943 82 01 79 telefonora deitu.

DEBEGESAk aurretik ere antolatu izan ditu formazio ikastaroak. Besteak beste, AS-400 IBM programatzaileei buruzkoak, orientatzaile laboralei buruzkoak eta harategi eta urdaitegiei buruzkoak. Partehartze altua egon da ikastaro guztietan eta lan munduan sartzeko aukera izan dute askok eta askok.



## Herri Eskolako jarduerak, Kuitur Etxean ikusgai

Aurreko ostiral iluntzean izan zen `Herri Eskolak, Eskola Biziak' izeneko erakusketaren irekiera ekitaldia. Herri Eskolako arduradunek erakusketaren nondik norakoak azaldu zituzten. "Elgoibarko Herri Eskolan eta Mendaroko Ikastolan egiten duguna erakusteaz bat, eskola irekiak, euskaldunak eta hezitzaileak garela azpimarratu nahi dugu". Hilaren 21era arte egongo da irekita erakusketa eta Elgoibarko Herri Eskolan, Mendaroko Ikastolan eta Institutuan egiten dutena ikusteko aukera izango dute Kultur Etxeko erakusgelara hurreratzen diren guztiek.



## Bota dute

Joan den asteko asteazken goizean ekin zioten Madalako `Errezabal' edo `Polleria' botatzeari. Azken egunotan makinak jo eta su aritu dira zakarrak kendu eta lur saila garbi lagatzeko. Duela pare bat aste BARRENen esan bezala, behin lur saila berdindu ondoren, etxeak eraikitzeko lanei ekingo diete. 128 etxebizitza izango dira, 5 bloketan banatuta.

## Babes olizialleko 7 etxebizitza ezinduentzako izango dira

Urruzuno inguruan eraikiko diren babes ofizialeko etxebizitzen proiektuan, ezinduentzako 7 etxebizitza aurrikusten dira. Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Koordinadorak kanpaina bat hasi du aurrerantzean probintzia osoan eraikiko diren ezinduentzako babes ofizialeko etxebizitzen berri emateko. Eskaerak egiteko epe bat dago, baina epea pasatu ondoren eskaerarik ez balego, ezinduentzako izateari lagako liokete etxebizitza hauek. Babes ofizialeko proiektuan aurrikusten denez, guztira 154 etxebizitza eraikiko dira Ikastolaren ondoan. Izan ere, Gipuzkoan egingo den babes ofizialeko proiekturik garrantzitsuenetakoa da. Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako caxebide' erakundeko teleforto zenbakira dei daiteke: 902 42 44 44.

## Etxebizitza berriak eraikitzeko lanak hasi dira San Bartolome kalean



Astelehenean hasi ziren San Bartolome kalean etxebizitzak eraikitzeko lanak. Urte askoan egurrezko hesiekin itxita egon den terreno honetan 4 pisuko eraikuntza altxatuko da, 8 etxebizitza izango dituelarik guztira. *Aukera* Inmobiliariak darama salmentaren gestioa eta Erdiko Kalea S. L. da bultzatzailea. *Aukera* Inmobiliariakoek esan digutenez, bi logelako eta 3 logelako etxebizitzak izango dira, 15.500 rrtilioi pta.tik aurrerakoak eta dagoeneko bakarra geratzen da salgai. Astearte goizean azterketa arkeologikoa egin zuten eta jakin dugunez, ez dute terreno hauetan inongo aztarna arkeologikorik topatu. Hortaz, eraikuntza-lanek aurrera egingo dute. Urte eta erdi barru etxea amaituta egotea espero dute.


a1pjaor/44 c*br.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Cordon,Vilarchao, c.

DEKC)RAZ1C)A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70






# Inauteri j

Larunbatean eta asteartean ateratako ondoko argazkietan ikusi daitekeen bezala, hotzari aurre egitera ausartu zirenek alaitasunez eta kolorez bete zituzten kaleak. Urtean behin bada ere, Inauteriak aprobetxatuz, beste norbait izateko aukera eskaintzen du mozorroaren anonimatoak. Egia esan, argazkiak ikusita, benetan bitxiak izan ziren zenbaitek aukeratu zituzten mozorroak. Inauterien jaia Atxutxi-karaokearekin hasi zen larunbat arratsaldean eta 150 ume bildu ziren mozorroturik abesteko prest. Gauerdian, berriz, Gurutze Gorriak antolatuta, Mozorroen Lehiaketa izan zen. Taldeka, Asterixek eta Obelixek irabazi zuten lehen saria. Bigarren postua Margarita ahuntzarentzat izan zen eta `Loco Mia.' musika taldekoak geratu ziren hirugarren. Koreografia onenaren saria Euroari buruzko saioa antzeztu zuten neskentzat izan zen. Banaka, berriz, Marokotik etorritako `Paisa'k irabazi zuen eta bigarren saria, `Lo Que El Viento Se LlewS' pelikulako neskame beltzak eskuratu zuen. Astearte arratsaldean, bestalde, `Telmah' taldeak haurrentzako saioa eskaini zuen Plaza Handian eta mozorrotutako herritar ugari hurbildu ziren. Besteak beste, Haurtzaindegikoak ipotx jantzita irten ziren eta `Peskatxintx u' koak arraina saltzen ikusi genituen











# aia kalean













# E R R E P O R T A J E A


















r;)!TIPPr

3. adinari zuzenduriko gehigarria

**37. zkia -** 1999ko otsailaren 19a

# Morrotzeko ez

**Pasa berri diren Inauterietan gazteak ez dira izan jaiaz gozatu duten bakarrak. Gure herriko edadetuek ere izan dute Karnabaletan murgiltzeko aukera. Astearte arratsaidean Jubilatu Etxean elkartu ziren Gelatxoren musikaren erritmora dantza egiteko. Izan zen jaira disfrazatuta joan zenik ere, eta beraien ausardia saritzeko mozorro lehiaketa egin zuten. Jantzi dotoreak erakutsiz desfilatu zuten eta ondoren epaimahaiak erabakia ezagutarazi zien bertan bildutako guztiei. Bakarka, Encarnacin Morak irabazi zuen pirata jantziarekin eta bikote irabazlea, berriz, Angel Valdivieso eta Antonia Josefa Marcianes izan zen.**

Gaztetan disfrazatzen ez bazen ere, mozorroen arloan espezialista dela erakutsi digu EncarnaciPnek. Badira hiru urte mozorrotzen hasi zela eta hau ez da jaso duen lehen saria. Duela bi urte Jubilatu Etxean saria eskuratu zuen eta aurten, Elgoibarren ez ezik, Ermuan ere irabazlea izan da mozorro lehiaketan. Disfraza etxean bertan egin du, bai piratarena eta baita lehengoan jantzi zuen Cordobesa jantzia ere. Inauteriak oso gustuko ditu eta datorren urtean ere mozorrotzeko asmoa dauka.





Orain arte besteen mozorroei begira egoten ziren baina oraingoan disfrazatzera animatu dira. Aurten mozorrotu dira lehen aldiz eta izandako arrakasta ikusita, azkena ez dela izango uste dute. Hasieran lotsa apur bat pasatu zuten baina, datorren urtean lehiaketara berriz aurkeztuko omen dira. Antonia Josefari mozorroa utzi egin diote, Angelek, aldiz, etxean bertan zeukan. Jasotako sariarekin oso pozik daude, batez ere, Inauteri egun hau gogoratzeko balioko duelako. Karnabalak gorde behar diren ohitura eder bat da eta beraiek horretan saiatuko dira.



# Enrike Zabata:

## "Atzerriko hizkuntzarik ez dakft, bairy ez naiz sekula galdu"

**Enrike Zabala 1934an jaio zen Mendaron eta, beste asko bezala, 18 urte zituela lanera etorri zen Elgoibarrera. Hainbat enpresatan egon ondoren, Danobaten egin du lan urte askoan, eta bere lanarengatik munduan asko bidaiatu du. Elgoibarrera etorri zenean futbolean ere jokatu zuen, baina kirolak laneko ordu asko kentzen zizkionez, eta etxera dirua eramatea beharrezkoa zenez, afizioa laga egin behar izan zuen. Laneko bidaietan zenbait bitxikeria gertatu izan zaizkio eta hauek eta beste zenbait gauza kontatu dizkigu Enrikek.**

**Noiz hasi zinen Danobaten lanean?**

- Elgoibarren hiru tailarretan ibili nitzan lanian eta 1960an sartu nitzan Danobaten montadore lana itxen. Gero, nik kapazidaderik ez nakala esan arren, goikuek mejoratzeko oportunidadia eukiko nabala esan, eta holaxe, mekaniko puestua eman zien. Hasieran asko sufridu naban baina, poliki-poliki, arpeixa eta gorputza itxen jun zian eta kanpoko bizitzara ohitxu nintzan. Honen ostian komertzialera pasau nitzan 1976an. Neri Hegoamerikako merkatuan arduria eman zien eta lehen baino biaje gutxiau in arren, urtian zortzi bat bider juten nitzan bertara. Portugalekin ere itxen naban lan.

**Nora egin zenuen zure lehen bidaia?**

- Lehenengo Frantziara jun nintzan frantsesez berba bakar bat jakin barik. Han problema haundixena jatekuakin euki naban, ezer entenditzen ez nabanez restaurantietan ez nakixan zer jan. Behin sukaldera sartu eta kazuelak zabaltzen hasi nitzan



*Goian Enrike Zabala ikus dezakegu gaztetan. Behean, gaur egun.*



gustuko zeozer topau arte.

**- Eta hortik aurrera bidaia pila bat.**

Bai, hola da, geratu gabe ibiltzen nintzan, familixatik urruti. Toki baten nauala beste batera juteko deitzen zien. Batzuetan, Frantziatik Inglaterrara, Sueziara, Finlandiara edo beste edozein tokitara juteko deitzen zien. Europa gehixena ezagutu dot, Estatu Batuak ere asko, ixa mundu guztixa pasautakua naiz. Gainera, orduan ez zauan tarjetarik, eta diru guztia poltsikuan hartuta juten ginan biajera. Haretxekin moldatu bihar izaten genduan.

**- Hizkuntzekin nola moldatzen zinen?**

- Oso gaizki. Danobaten hizkuntzak erakusten saiatu zian eta nerekin hasi zian batzuek ikasi zeben. Baina ni ixa beti kanpuan nauanez, ez nitzan ikastera juaten, hala ere, jun izan banintz ere ez dakit ikasiko nukeen. Ez dakit zela, baina zeozer entenditzen naban eta moldau nitzan, gainera toki askotara ailegautakua naiz eta ez naiz sekula galdu.

**- Izango duzu anekdotarik kontatzeko.**

Asko euki ditxut baina bat kontatzekotan behin Colonbian pasautakua kontauko dizuet. Bildurgarrixa izan zan. Arratsalde baten lagun batzuk buelta bat ematera urten genduan Bogota gainian dauan santuarixo batera. Bidian galdu in ginan eta bueltan karretera erdixan arbola bat zauan, eta arbolia apartatzeko kotxetik jaitsi gimanian bi mutil enkaputxauta urten zian. Pistolak eta nabajak eskutan zitxuela baloreko gauzak emateko esan ziguten eta guk eman beste erremedixorik ez gendun euki.

**- Noiz arte egon zinen Danobaten?**

62 urtekin jubilau nitzan eta azkenengo urtiak oso gogorrak izan zian neretzako. Teknologia berrixak sartu zian eta eskola zaharrekuok ez ginan horrekin moldatzen, eta fisikoki ondo egon arren ezin genien berrikuntzei segi, beraz, aukeria etorri jatanian urten in nintzan.

# ETA ZUK, OW, DIOZU?

## Ondo egiten al duzu lo?

**Gaztetan ohetik jaikitzea asko kostatzen zaigu eta, urduri ez bagaude behintzat, gehienok lo sakona izan ohi dugu. Urteetan aurrera egin ahala, ordea, pertsona nagusiek lo egiteko arazoak izaten dituztela gauza entzuna da. Bada arratsaldeetan siesta botatzen duenik, edo eta lo egiteko pilulen beharra daukanik ere. Hala ere, lo ondo egiten ez duenari irtenbide egokia bilatu diogu: gehigarri honetan emango zaizkion aholkuei jarraitzea, hain zuzen ere. Guk, herriko zenbait edadetuk zer moduz lo egiten duten jakiteko asmoz beraiengana jo dugu.**



**Jose Fernandez**
Normalean ohera sartu eta lau ordu egiten ditut lo, ondoren, beste hiru orduz esna egoten naiz eta gero berriz lokartzen naiz. Urteak aurrera joan ahala ordu gutxiago lo egiten dut baina lanik egiten ez dudanez eta, beraz, nekatzen ez naizenez, gorputzak ez dit lo-ordu gehiago eskatzen.



**Pedro Gonzalez**
Oso ongi egiten dut lo, zortzi ordu-edo, baina ez jarraian, noizean behin esnatu egiten naiz eta. Siestarik ez dut inoiz ere egiten, bestela gauez esnatu egingo nintzateke. Gaztetan lanetik nekatuta etortzen nintzenez orain baino denbora gehiagoz egiten nuen lo eta goizean jaikitzea ere kostatu egiten zitzaidan. Orain, aldiz, goizeko zortzietarako esna egoten naiz.



**Juan Rojo**
Gauean ez dut ia lorik egiten min asko edukitzen baitut. Duela hamabost urte istripu bat izan nuen eta ordudanik asko kostatzen zait ohean postura egokia bilatzea. Lo egiteko pastilak ere hartu behar izaten ditut.



**Tomasa Blanco**
Ez zait kostatzen loak hartzea. Beti oso ondo egin izan dut lo. Gauean puntoa egiten edo telebista ikusten egoten naiz berandurarte eta ordubatak aldera-edo joaten naiz ohera. Gero, goizean, hamarretan jaikitzen naiz.



**Paquita Pardo**
Gehienetan ongi egiten dut lo, zazpi edo zortzi orduz jarraian. Gauean goiz oheratzen naiz eta goizean zortzietarako jaiki. Azken aldian, gauez lo egiteko arazoak izaten ditut baina, bazkal ostean, siloian eseri orduko berehala hartzen dut lo. Hamar minutu badira ere, siesta egiten dut.

# Ondo lo egiteko aholkuak

Beti ordu berean oheratu eta jaiki. Kontuan hartu esnatzen garenetik ohera joan artean hamabost ordu inguru igaro behar

"Agunero 8 ordu lo egitea da gomendagarriena. Gutxiago lo egiteak logura eta nekea eragin ditzake. Gehiago egiteak, berriz, "lo mozkorraldia" delakoa.

hartzeko arazoak dituenak goiz zein arratsaldeko loaldiak sahiestu beharko tuzke, gauez bakarrik lo eginez.

joan aurretik ez da inoiz esan behar lorik ez dut hartuko, ohean nago eta lo egingo dut baizik.

Ohean gaudela lorik hartu ezin badugu, edo esnatzen bagara, onena jaiki eta berriz logura izan arte logelatik ateratzea da.

dugu inoiz lo hartu behar butakan. Logura izanez gero, hasieratik ohera joatea da komenigarriena.

1:-,Eguneko ekintzak programatzea egokia da. Honela, gorputzak aktibitate afdia eta atseden orduak bereiziko ditu.

Ariketa fisikoa gaueko atsedena baino 4 edo 5 ordu lehenago egin. Izan ere, nekeak logura kentzen du.

logelatik kanpora utzi behar dira. Horretarako komenigarria da erlajazio ariketak egitea.

1.:.Telebista eta irratiak loaren zikioak aldatzen dituzte, beraz, logelatik atera behar dira.

".f. Logelan 20-22 gradutako tenperatura izatea komeni da. Hezetasun ezak giroa lehortu eta zurrunkak eragiten ditu.

Koltxoi gogorra eta buruko egokia izan, ez oso altua ezta bajuegia ere.

***Iturria: Sesenta y mas aldizkaria.***



ERREZETIA · ERREZETIA

sl



# Juana Rementeria

## Legatza saltsan

**OSAGAIAK:** Legatza, almejak, olioa, gatza, berakatza, perejila, arrautza bat eta esparragoak (aukeran).

**PRESTAKETA**

Legatza garbitu eta tajada biribiletan zatitu. Kazuela zabal batean oliba olioa jarriko dugu eta berakatz txikitua bota. Sutan berotu eta berakatz zatiak gorritzen direnean, sutatik apartatu. Kazuelako olioa hoztu egin behar da legatz zatiak bertan jarri aurretik. Ondoren, kazuela sutan jarri, su txikian, eta legatza egiten laga. Oso garrantzitsua da kazuelari eragitea saltsa lodia ateratzeko. Legatz zatiak alde batetik zuritzen direnean, buelta eman eta beste aldetik egin daitezela. Legatza erdi egina dagoenean, perejila bota, txiki-txiki. Segidan almejak gehitu eta bost bat minutuz tapa jarri, almejak ireki arte. Platera dekoratu nahi badugu, arrautza egosia lau zatitan egin, eta legatzaren gainean jarri. Esparragoak gustukoak izanez gero, hauek ere dekoratzeko erabil ditzakegu.

EHIGARRI HONETAKO KOLABOR ilatu Etx

*Maria Jesus Fernandez elgoibartarra da. 18 urterekin Donostiara joan zen Enpresa ikasketak egitera. Bi urte geroago Gasteiza joan zen ikasketak lagata. Bertan administrazioan lan egiten hasi zen. Duela zortzi urte yoga, bioenergetika eta masaiaren znunduan sartu zen. Gaur egun, erlajazio eta gorputz espresio ikastaroa ematen dihardu Elgoibarko Kiroldegian.*

# Jesus Fernandez

# "Gure burua ezagutzeko gorputzak esaten digunaz ohartu behar gara"

Nolla sartu zinen mundu honetan?

Yoga klase batera joan nintzen eta bertako giroa gustatu zitzaidanez, horretan jarraitzea erabaki nuen eta gaur arte.

Noiztik zabiltza honetan?

Dantzarekin hasi nintzen, Jazzarekin eta dantza kontenporaneoarekin, eta horrek asko markatu ninduen. Baina beste alor honetan duela harnar urte ingurutik nago sartuta. Piskanaka, klasean egindakoaz gain, etxean ere landu dut eta azken bi urteotan profesionalki lan egitera iritsi naiz.

Nola sortu zen Elgoibarko Kiroldegian ikastaroa egiteko ideia?

Administrazioko lana ez zitzaidan gustatzen, beraz, eszedentzia eskatu nuen. Gasteizen klaseak ematen nituen eta gustuko nuela ohartu nintzen, baina arlo honetan lan handirik ez neukanez, Elgoibarrera itzuli nintzen. Hemen zerbaiten bila hasi nintzen eta azkenean ikastaroa antolatu genuen. Hala ere, ez da erraza izan, taldea sortzea asko kostatu zaigu.

— Zer jende dago ikastaroan?

Hasieran hiru pertsona baino ez ziren azaldu, beraz, bigarren deialdia egin *ge*nuen. Jende rnu1tzo handi bat hasi zen orduan, baina orain bost Iagun baino ez gaude, guztiak emakumeak eta batez besteko adina 37 urtekoa da. Bilbon ere ematen dut ikastaro bat eta hango taldea oso ezberdina da, gizonezkoak dira nagusi. Hala ere, ikastaro hauetan ohikoa da emakumeak gehiago izatea, barrura begiratzeko joera gehiago baitauka.

Zein da ikastaroaren helburua?

Gaur egun, adimenean zentratzen gara eta kasu gutxi egiten diogu gorputzak esaten digunari, barruan daukagunari, berez gure izatea den horri. Beraz, geure buruaren jabe izatea eta gorputzak esaten digunaz ohartzea dira gure ikastaroaren helburuak.

— Zer lantzen duzue?

Nik ezagutzen ditudan teknikak eta dantza, masaia, antzerkia, bioenergetika edo erlajazioa bezalako tatik hartutakoak erabiltzen ditugu ikastaroan. Gure klaseak nahiko dinamikoak dira, jendea inplikatu ohi dugu ariketetan. Talde edo binakako jolasak, mugimendu geldoak, ispiluaren bidez norbere buruarekin aurrez aurre jartzea eta luzaketa-ariketak egiten ditugu.

Zenbaterainoko garrantzia dauka hemen ikasitakoa praktikan jartzeak?

Oso inportantea da, azken finean gure hizitza baita. Guztiok saiatzen gara bizitzari zentzu bat bilatzen eta nork bere burua maitatzea ez da bakoitzarentzat bakarrik ona, guztientzat baizik. Hala ere, ez da horren erraza bakoitza bere buruarekin aurrez aurre jartzea.

Aurrera begira zer asmo daukazu?

Ikastaroa ekainera arte denez, taldea mantentzea nahiko nuke. Piskanaka muniztuz doa baina gaudenok jarraituz gero, pozik egongo nintzateke. Jendea animatu nahi nuke gure taldera etor dadin. Edonork ateak zabalik dauzka gurekin batera bizitzari zentzua bilatu nahi badio. Honez gain, irrati mundua ere gogoko dut eta erlajazioari buruzko irrati saio bat gustura egingo nuke.

EESTEEK ***ESANA***

"Norbere barruari begiratzea gustuko duen pertsona goxoa da". ANE GOIKOETXEA, ikaslea.








Zuan Jose Arrillaga e goibartarra da baina aspalditik bizi da Mexikoko hiriburuan, Distrito Federal delakoan. Itsasoaz bestalde joan aurretik, Elgoibarren bertan ezkondu zen Mila Totorikarekin. Ondoren joan ziren Mexikora, lan kontuengatik hain zuzen. Bi seme dituzte, Lorenzo eta Javier, 36 eta 34 urtekoak. Mexikon jaio ziren eta biek ikasi dute euskaraz. Juanjok eta emazteak ere ederki gorde dute euskara. Juanjok Makina Erreminta sektorean egiten du lan eta bi semeak enpresako errepresentanteak direnez, Euskal Herrira etortzeko aukera izaten dute lan kontuegatik. Seme bietako bat, Lorenzo, zesta punta jokalari profesionala izandakoa da eta Juanjo Mexikoko Pilota Federazioko presidentea izan zen. Juanjori asko gustatzen zaio Mexikoko Euskal Zentrora joatea eta bertako presidentea ere izan zen.

31.A.an *pose* Av'Y'ilickscv

Mexikon bizi direnez, ez dute Elgoibarrera etortzeko aukera handirik izaten. Lehen sarriago etortzen ziren. Dena den, gure artean azkenekoz Gabonetan izan ziren. Elgoibartera etortzen direnean hemen hobeto bizi garela esaten dute, Mexikoko hiriburuan baino bizimodu lasaiagoa daramagula hemen, han ikusten diren lapurreta, auto ilara eta horrelakorik gabe. Izan ere, Mexiko hogei milioi biztanle dituen hiria da.

**MIL3F10 EXPQE**
***bidaia agentziak***
***babestutako atala***
Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

# GOGORATUZ

## Josepa Inaxi Uria Oñederra

## (1900-1990)



• 1900ko martxoaren 31n jaio zen, Arriaga auzoko Lizundia baserrian. II anai arreba ziren, bera bosgaffena. Gaztetan ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan eta anai-arrebak izan zituen irakasle, oso gazterik hasi baitzen baserriko lanak egiten.

• Ezkondu haino lehen bere neska kuadrilarekin Madarixako, Kurutzetako eta beste hainbat lekutako erromerietara joateko ohitura zuen. 22 urterekin bere baserrian ezkondu zen Jose Oñederrarekin, auzoko Aitxola Berri baserriko senargatarekin, eta 7 seme alaba izan zituzten.

• Senarrak lberdueron lan egiten zuen eta Zestoara joan ziren bizitzera. Gemago, San Antolinera eta, azkenik, Altzolan finkatu ziren. Josefaren familia oso Altzolatarra egin zen eta ez ziren Altzolatik gehiago mugitu.

• Oso emakume ausarta zen cta czkondu eta gero ere, Elgoibarko sokamuturrean ibiltzeko afizioa zuen. Zezen soltean ibiltzera Lasturrera, Altzolara, Arratera eta beste leku askotara joaten zen.

• Joaten zen leku guztietan umorea eta giro ona ipintzen zituenez, bere lagun eta ingurukoek bidaia denetara eramaten zuten eurekin.

• Sinesmen handikoa zen, Amabirginaren Konlregazioko kidea. Bestalde, oso estimatua zen Altzolan. Bertan hainbat belaunalditako beraneanteak ezagutu zituen eta Elgoibarren ere ezaguna zen.

• Alaia eta borondatetsua zen eta kartetan jolastea eta euskal abestiak kantatzea gustatzen zitzaizkion.

1990ko maiatzaren 13an hil zen 90 urte zituela.

Juanito Gorostiza

KAROBI
3ERL




**UCUTICUI DfI IDAS**
Enpanadak
Enbutidoak
Baserriko ogia
Bolleria
L... San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Tz 943 74 33 92

**Kontabilitate**
**Lan**
**- Fiskal**
Kalamua 12
ELGOLBAR
Tel-Fax:
943 74 18 91
***URKIDI***
AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGUROAK



ste honetako alean hainbat eta hainbat mozorroren errepasoa egin dugunez, Inauterietako erretratu zahar polit hau erakusteko aukera aprobetxatu nahi izan dugu.

**Itziar Kondek** laga digu argazkia eta, berak esan digunez, duela 50 urte inguruko Inauterietan dago aterata. Don Antonio Arrillagaren etxe azpian elkartu zen argazkian agertzen den neska taldea eta Itziarren hitzetan, "Kontxita Arrillagak egindako pella goxoak eta txorizo-tortila jan genituen".

Hona hemen erretratuan ikus ditzakegun nesken izen-abizenak:

Goitik eta ezkerretik hasita, **Mari Karmen Eriz, Ana Mari Zuazubizkar, Rosa Herrero, Kontxita Arrillaga, Itziar Konde** eta **Trini Barrutia.**

Behean, ezkerretik hasita, **Kontxita Armendia** eta **M. Angeles Gabilondo (t).**



*ESKERTZA*

*1999ko otsailaren 17an, 62 urte zituela hil zen Lizundia baserriko MIGEL IZAGIRRE ARRIZABALAGAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# 3ko 1 "Areto futbolean Islamika ata agresihitatea behar dira"



## Hector Garrido

- **Adina:** 23 urte.
- **Ligako ekiporik onena ?** Erreala.
- **Jokalari onena ?** Luis Perez.
- **Inoiz kanporatu al zaituzte ?** Ez, inoiz ez.

**- Zer moduz Ligako txapelketan?** Ligako txapelketan lehenak gara eta azkeneko partiduan bigarren sailkatuari irabazi ondoren, 5 puntuko aldea atera diegu. Ligako **lehen** zatia amaitu berri dugu eta harnabi partidu gelditzen zaizkigu jolasteko. Beraz, badugu ilusiorik eta aukerarik Liga irabazteko.

**Zein da goragoko malla?** Mailaz igoz gero, Euskal Ligan jokatzen da. Bidaia **luze** eta garestiak ez egiteko sortu zen Liga hau, bestela Santander, Logroño eta horrelako lekuetara joan beharko genuke partiduak jokatzera. Dena den, Liga irabazita, zuzenean igotzeko eskubidea dugu, baina aurrekontu handia behar da goragoko mailetan jokatzeko. Babesleen laguntza ere behar da, aurten Zur Ta Lur-ek lagundu gaituen moduan.

**- Areto futboleko klubaren 10. urteurrenean mailaz igotzea izugarria tzateke, ezta?** Bai, sari onena Liga irabaztea litzateke, baina Elgoibarko beste taldea mailaz ez jaistea ere garrantzitsua da, azkenak baitoaz. Gainera, Ligako txapeldunak Espainiako Txapelketara, Segovira, joateko aukera izango du eta hori guretzat sari handia da.

**- Zein da taldearen gauzarik onena?** Talde konpentsatua daukagula. Aurten, jokalariren batek ezin badu partiduren batera joan, ez da ezer gertatzen kalitatezko ordezkoak ditugulako eta taldeak ez du gehiegi nabaritzen.

**- Taldeko goleatzailerik oneneta-koa zaitugu.** Bai, azken hiru denboraldietan taldeko "Pitxitxi"a izan naiz. Aurten ere nahiko ondo nabil eta urtea hasi zenetik 11 gol sartu ditut. Guztira 20 gol inguru egin ditut denboraldia hasi zenetik.

**Ikusi duzun jokalaririk eta talderik onena?** Chirolek baloiarekin daukan teknika oso jokalari gutxik dute gure mailan. Talderik aipatzekotan, iazko txapeldunak dira onentsuenak.

**- Ikusle asko joaten al da partiduetara ?** Liga osotik, jende gehien joaten den Kiroldegia da Elgoibarkoa. Izan ere, beste herri askotako kiroldegiak ia hutsik egoten dira. Gu ezin gara kexatu, gure zaletuek giro polita sortzen baitute. Duela hiru urte mailaz igotzeko borrokan egon ginen, eta azken partidu erabakiorrean oso saltsa eta giro polita egon zen. Horrelako giroa izatea gustatuko litzaiguke partiduero.

**- Agresibitatea ala buru hotza izatea komeni da?** Kontaktu asko dagoen kirola denez, agresibitate pixka bat edukitzea komeni da. Baina joko teknikoa ere badenez, bi ezaugarri horien arteko oreka lortu behar da.

## K I ROL AL BISTEAK

### • Eskota Kiroleko xake entrenamenduak

Otsailaren 25ean hasiko dira Eskola Kiroleko benjarnin, alebin eta infantilentzako xake entrenarnenduak. Zubi-Ondo ELkartearen egoitzan izango dira prestaketa saioak, Pista Beltzeko lokalean, hain zuzen. Entrenamenduak ostegunero izango dira arratsaideko 17;00etan hasita.

### • Aralarrera mendi irteera, igandean, hilak 21

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, igandean, hilak 21, goizeko 7:30ean Plaza Handitik irtengo da autobusa Aralarrera joan nahi duten guztientzat. Mendizaleek Aralar inguruan trabesia egingo dute eta asmoa da arratsaldeko 4rak alderako etxera bueltatzea.

## ESKOLARTEW KIR@LAK

**ESKUBALOIA** (Ikastolan)

al **Benjamin mulilak** ■
**10:00** Herri Eskola A- Ikastola A
**10:30** Pilar A Pilar B
11:00 Ikastola **B-** Mendaro A
**11:30** Herri Eskola B- Ikastob C

■ **Benjamin neskak**
**12:00** Ikastola B- Pilar B
**12:30** Ikastola C Pilar A

**ESKUBALOIA** (kiroldegian)

EJ **Infantil neskak** •
9:00 Ikastola C - Ikastola E
**9:45** Ikastola A- Ikastola D
12:00 Ikastola **B-** Pilar A
11:15 Pilar B - Jauja
12:45 Ikastola D - Jauja

**11Infantil mutilak** E
**10:30** Insti - Ikastola

**FUTBOLA** (Mintxetan)

■ **Alebin neska-mulilak** ■
A **ZELA1AN**
**9:15** Hamaika Txiki - Pilar B
10:00 Ikastola A - Txinpartak
**10:45** Pilar **B-** Ikastola A (Nes.)
**11:39** Herri Eskola Goizeko Izarra D
**12:15** Pilar A - Mikel Deu. A (Nes.)
B **ZELAIA**
**9:15** Ikastola B - Lekube
10:00 Hamaika Nes, - Ikastola C (Nes.)
**10:45** Mendaro A- Goizeko Izarra A
11:30 Pilar A- Mikel Deu. B
12:15 Ikastola B- Goizeka lzar. B (Nes.)

# 3 domina eskuratu dituzte judoka elgoibartarrek Euskadiko Txapelketan

Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko hiru judoka Euskadiko Judo Txapelketan izan ziren. Hiru elgoibartar hauek Gipuzkoako Torneoan txapeldun gelditu ziren aurrez. Emaitzei dagokienez, txapeldunak honako hauek izan ziren: Egoitz Morak urrezko domina eta, beraz, Euskadiko txapelketa irabazi zuen 90 kg-z pekoetan. Igor Gorroñok zilarrezko domina eskuratu zuen, 100 kg-tik gorakoetan eta Gorka Garatek brontzezkoa 81 kg-tik azpikoetan. Hiru judoka hauek bikain ibili ziren eta meritu handia du egin dutenak. Esan beharra dago Egoitz oraindik jubenil mailakoa dela eta bera baino bi urte zaharrago diren judoken aurka lehiatu zela. Gorkak, berriz, Bizkaiko eta Arabako txapeldunak kanporatzeko bi borrokaldi bikain burutu ostean, bere selekziokide baten aurka galdu zuen azken segundoan. Igor Gorrohoren zilarrezko dominak ere izan zuen meriturik. Kontutan hartu behar da sei hilabete bakarrik daramatzala kirol hau egiten.

Otsailaren 20an, Nafarroan jokatuko den Espainiako Txapelketaren Sektoreko faserako, Euskadiko selekzioarekin zein judoka joango diren jakitea falta da.



*Ezkerretik hasita, Igor Gorroño, Egoitz Mora eta Gorka Garate judokak.*

# KIROL ALBISTEAK

## Ander Golkoettea Espainiako Eskubaloi Selekzioan

Ander Goikoetxea, 18 urteko eigoibartarra, Murtzian egon da astebetez Espainiako eskubaloi selekzioarekin kontzentratuta. Aste Santu inguruan Kopa Latina atzerriko txapelketa jokatuko da eta txapelketa hau prestatzeko izan da kontzentrazioa. Estatuko beste I 5 jokalarirekin batera egon da Ander Murtzian. Eibarko Arraten jokatzen du Anderrek, eta ez da selekziora joateko deitu duten lehen aldia. Aurreko aldian txorkathean min hartu eta etxera itzuli behar izan zuen.



## EMAITZ 'K

**Futbola**

Elgoibar 5 - Hamaika Bat 1 (10.)
Elgoibar 1- Bilbao Athletic 0 (L. N. jub.)
Pedrusko 3- Kilimon 1 (2. erreg.)
Haundi 0 - Osasuna 4

**Areto futbola**

C. Iceber 6 - Zur Ta Lur Elg. 3 (1. maila)
Cabo Rojo 1- Zur Ta Lur Elg. 2 (Auto.)

**Eskubaloia**

Hondarribia 30 -Tecnomeca Elg. 23 (Kad. mut.)
Askartza 10 - Pagoaga Elg. 20 (Kad. nes.)
Askartza 17 - Unceta Elg. 20 (Jub. nes.)
1MS Elg. 17 - Galdakao 12 (Sen. nes.)

**Idarraga Kafeak 2. saria**

HAUNDIko jokalari erregularrena 98/99

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Aitor Trebiño | 32 |
| 2- Eneko | 24 |
| 3- G. Lazarobaster | 23 |
| 4- Diaz | 21 |
| 5- Ibon Muguruza | 20 |
| 6-Txasio | 18 |
| 7- Beitia | 18 |
| 8- Iker Leonardo | 17 |
| 9- Elkoro | 15 |
| 1 0- Madina | 14 |
| 11- Carn | 14 |
| 12- Igor | 11 |
| 13- G. Leonardo | 10 |
| 14- Loren | 9 |
| 15- Gurrutxaga | 4 |
| 16- Portu | 1 |

## AGENDA

**Areto futbola,** Kiroldegian

Ostirala, 19
22:10 Zur Ta Lur Elg. - Gubi (1. maila)
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Nogales (Auto.)

**Futbola,** Mintxetan

Larunbata, 20
15:30 Elgoibar - Bergara (1. jub.)
17:15 Elgoibar - Usurbil (1. erreg.)
Igandea, 21
16:00 Elgoibar- Urki (Neskak)

**Eskubaloia,** Krodegian

Larunbata, 20
16:00 Pagoaga Elg. - A. Mendi (Kad. nes.)
17:30 Unceta Elg. - A. Mendi (Jub. nes.)
19:00 IMH Elg. - Urnieta (Sen. mut.)
Igandea, 21
12:30 Pagoaga Elg. - Ermua (Kad. nes.)

**Futbitoa,** Kiroldegian

Igandea, 21
9:00 Aide Globun - Kunta Kinte
10:00 Los Peñaskos - Kunta Kinte
11:00 Aizkorak Mendibil - PSK

# Fti 2L

## A noite do amor do sonrisa e a flor

**riska** baten edertasuna komentatzeakoan, beti topatzen dituzu adjetibo horren eredu diren diska batzuk. Brasilek musika aldetik erakusten duen unibertsoa, kolorez eta mogimenduz betetako unibertsoa izan da, gehienbat *Sambari* esker, berau izan delako Brasilgo ispilu sonoroa. Baina ez da bakarra, "Bossa nova" ("nueva ola" portugesez) izeneko estilo honek jazzaren eta boleroaren bidez ederki musikatzen ditu herrialde honen sentimenduak, maitasunaren eta bizitzaren arteko lotora hauek abesti goxoz eta ederrez homituz.Antonio *Carla Jobim* dugu konpositore famatuena. *Jazz* musiko askok bere konposizioak erabili izan dituzte. *Stan Getz* saxofonistak bere nortasuna inposatu zuen (zuria izanda) bere soirtuari esker. *Joao Gilberto*, Bahiako kostaldeko kitarrajolea eta abeslaria zen *Bossa Novaren* sortzaileetako bat.

1963an, *Stan Getz-ek, Joao Gilbertok eta Jobimek* (azken honen konposizioak) musikaren historian egin den diskarik eder, polit eta goxoenetarikoa egin zuten. Gaur egun, 30 urte baino gehiago pasatu direnean, diska hau entzuteak kondizionatzen bazaitu, ez egin kasurik, musika soinua baino gehiago dela uste duen edonorentzat da eta. *Verve* zigilupean eta edizio berri bat kalean orain dela bi urtetik... Edozein pozteko edo tristetzeko abestiz josirik dagoela esateak ez al du, bada, inor konbentzitukol

Iban Urizar




# Juan Antonlo Urbeltzekin dantzan

### 15 herritarrek eta Haritz Dantzari Taldeko 30 kidek hartu zuten parte

Aurreko ostiral gauean 45 bat lagun elACartu ziren Kultur Etxeko sotoan Elgoibarko Izarrak antolatutako `Dantza ganbara' saioan. Kultur Errotaren 5. saioa gaueko 22:30ean hasi eta goizeko 1:00ak arte luzatu zen. Juan Antonio Urbeltz dantza maisua eta bere emaztea eta semea izan ziren musikaz arduratu eta dantza irakasten aritu zirenak. Saioaren hasieran Urbeltzek `Dantza Ganbara'ren zentzua azaldu zuen. Bere hitzetan, "gaur egun dantzarako ohitura galtzear dago. Gure asmoa ohitura hori berreskuratzea eta piztea da".

Jakin dugunez, 15 herritar eta Haritz Dantzari Taldeko 30 bat lagun izan ziren saioan. Gau osoan dantzan ibiltzeak sortzen duen egarria asetzeko, antolatzaileek garagardoa, ura, freskagarriak eta likoreak eskaini zituzten doan. Ikasitako eta dantzatutako piezak Baxe Nafarroakoak izan ziren, besteak beste. "Denak ziren taldean dantzatzekoak, oso politak". Antolatzaileak oso gustura geratu omen dira saioarekin eta esan digutenez, Kultur Errotaren hurrengo emanaldia martxoaren 12an izango da. B esteak beste, Jabier Muguruza abeslariak hartuko du parte.





*Urbeltzen emaztea eta semea musika kontuez arduratu ziren (goiko argazkian). Behean, dantza saioko une bat.*

# Ricardo Aldarondo kritikoak ᴵEl Rey de las Mscaral filmea aurkeziuko du hilaren 25eko zine klubean

atorren ostegunera-Liko, hilak 25, Ongarri Zine Klubak saio berezia antolatu du. Oraingoan, Ricardo Aldarondo Diario Vasco egunkariko zine kritikoa gonbidatu dute. Emanaldiaren hasieran, Txinan produzitutako Rey de las mascaras' 111-mearen inguruko gorabeherak kontatuko ditu. Ongarrikoek esan digutenez, `Estaci6n Central de Brasil' pelikula emateko asmoa zuten, baina Oscar sarietarako atzerriko pelikulen atalean izendatuta dagoenez, banatzaileek pelikula hau kendu egin dute herri txikietatik, hiri handietan emateko. "Dena den, laster batean melodrama neorrealista




honen kopia bat eskuratzeko esperantza daukagu. Bere ordez, Txinako Wu Tianming zuzendariak egindako filme bitxia prestatu dugu".

`El Rey de las masearas' pelikulak arrakasta handia izan du zine jaialdi askotan. Edertasun handiko melodrama da, artesanala eta ikusgarria. Ekialdeko eta mendebaldeko kultura artistikoek bat egiten dute. Txinako maskara-teatroaren tradizioa mendebaldeko zinearen ikuspuntutik landuta dago.

Aldarondo zine kritikoaren aurkezpenaren ostean, antzerki saio labur bat izango da. Hilaren 25ean ez ezik, ostiralean ere (hilak 26) emango da `El Rey de las mascaras' pelikula.

# Iñaki Aronborri

**1 - Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea?**
Bai, eta Elgoibarren bizitzea are gehlago. Larunbatetan giro ona egoten da eta ikastetxeak ere bertan dauzkagu.

2 **Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin?**
Oso larri egonda eta berak eskatuz gero, gaixotasun sendaezin bat izango balu, bai.

3 - **Hil eta gero?**
Kristaua kontsideratzen naizen arren, momentua heltzen denean ikusi beharko dela uste dut.

**4 - Lehenengo ni eta gero besteak.**
Batzuetan bai. Besteengan pentsatzen egonez gero, besteari on egingo diozu, baina nor bere buruari ere piska bat begiratu behar zaio.

**5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?**
Gehienetan lagunei, baina, arazoaren arabera, amari ere kontatzen dizkiot batzuetan.

6 - **Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?**
Arkitektoa izatea gustatuko ke. Bizioa, berriz, ordenagailuko xaguaren barruko bolatxoarekin jolastea da.

7 - **Sinesten al duzu politikan? Eman al zenuen botorik?**
Sinetsi bai, baina kasu gehiegirik ez diot egiten. Botua emateko adinik ez daukat oraindik, baina momentua iristean botatuko dudala uste dut.

**8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera?**
Orain dela asko izan zen, Bilbon, baina ez dut gogoan zein manifestazio zen.

**9 - Euskalduna naiz eta harro nago.**
Bai, noski.

**10 - Zerk galerazten dizu loa?**
Bildurrezko pelikulek, hurrengo egunean bidai bat egin behar badut...



I KASLEA 15 URTE

**11 - Joaten al zara Gaztetxera?**
Batzuetan bai, eta ondo dagoela iruditzen zait.

**12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?**
Piska bat bai, baina gehiegi ez.

13 - **Zer da gurasoengandik gehin gustatzen zaizuna? Eta gutxien?**
Gehien, etxeratzeko ordua jartzerakoan nahiko eskuzabalak direla. Gutxien, berriz, nik nahi ez izan arren, batzuetan konpromezuak betetzera behartzen nautela.

**14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan?**
Mahaia jasotzen dut batzuetan baina ez dut gauza gehiegitan laguntzen.

**15 Ondo pasatu al daiteke alkoholik gabe?**
Edatea nahi duenari ez zaio eskubide hori kendu behar, baina nire ustez ondo pasatu daiteke alkoho lik gabe.

**16 - Irakurri duzun azken liburua?**
Orain "Sentido y sensibilidad" irakurtzen ari naiz.

**17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?**
Nire ustez sexua izateko maitasuna eduki behar da.

**18 - Birjinitatea traba ala bertutea?**
Birjinitatea galdu behar da norekin galdu nahi duzun ziur dakizunean.

**19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu?**
Sorpresaz hartuko nuke baina ez nuke alboratuko.

**20 - Sinesten al duzu betiko maitasunean?**
Bai, maitasun platonikoa izan arren, maitasun hori betirako izan daitekela uste dut.

## 19 ostirala

18:00 MERTXE ZABALA
IPUIN KONTALARIA
Kultur Etxean
Antolatzaileak:
Herri Eskola, Arreiturre
Institutua eta
Mendaroko Ikastola

18:30 ODOLATERALDIA
P. M. Urruzuno 8an

22:15 ZINEA
"Mas alla de los sueños"

## 2 larun a a

12:00 URRUZUNO
LITERATUR
TALDEAren BILERA
BARRENen

19:30-22:15 ZINEA
"Mk alla de los sueños"

## 21 igandea

7:30 ARALARRERA
MENDI TRABESIA
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea:
Morkaiko M.E

16:30 HAURREN ZINEA
"Madeline"

19:30-22:15 ZINEA
"Mk alld de los sueños"

## 2 aste ehena

22:15 ZINEA
"M 'as alla de los sueños"

## 23 asteartea

19:00 EUSKALPRESOAK
EUSKALERRIRATZEA-ri
BURUZKO BILERA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Senideak

## 24 asteazkena

18:00 JUBILATU
ETXEKO BATZAR
NAGUSIA
Jubilatu Etxean

19:00 LIZARRA-GARAZI
AKORDIOAri
BURUZKO HITZALDIA
Hizlaria: Arnaldo Otegi
Kultur Etxean

## 25 osteguna

20:00 KORRIKAREN
AURKEZPENA
Kultur Etxean
Antolatzailea:
AEK Euskaltegia

22:15 ZINE KLUBA
"El rey de las t searas"

## 26 ostirala

19:00 BILERA
INFORMATIBOA
IMHn

19:00 ELGOIBARKO
EMAKUMEEN
ESKULANEN
ERAKUSKETA
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Haizea Emakume Taldea
Martxoaren 14ra arte

22:15 ZINE KLUBA
"El rey de las ma'scaras"

11 NE A



Zuzendarla: Vincent Ward.
Antzezleak: Robin Williams, Cuba Gooding Jr., Annabella Sciorra.

### Mesalb de los sueños

Chrisek izugarri maite du Annie, emaztea. Euren arteko maitasunak ez du mugarik eta ezagutu zirenetik ez dira inoiz banatu. Hain da indartsua bien arteko maitasuna, zeruaren eta lurraren arteko muga zeharkatzeko prest egongo dela Chris bere maitearen ondoan egotearren. Pelikulak bidaia ikusgarri hori kontatuko digu, ametsak baino haruntzago dagoena irudietan erakutsiz.

al R IR R ZI Ill R

## • 11. Horrikaren aurkezpena hilaren 25ean izango da

Datorren ostegunean, hilak 25, 11. Korrikaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean iluntzeko 20:OOetan. `Korrika! 1+1=Hamaika zu eta ni euskaraz' lerna izango du aurten eta martxoaren 19tik 28ra bitartean Euskal Herri osotik pasatuko da. Iruriean hasi eta Donostian izango du helmuga. Korrika prestatzen lagundu nahi duten herritar guztiei dei egiten zaie hilaren 25eko aurkezpenera.

## • Lizarra-Garazi akordloari buruzko hitzaldla

Datorren asteazkenean, hilak 24, hitzaldia izango da Kultur Etxean bi gai nagusiren inguruan. Batetik, Lizarra-Garazi akordioaren inguruko xehetasunak emango dituzte eta bestetik, Euskal Herritarrok zer den azalduko dute. Arnaldo Otegi EHko bozeramalea izango da honi guztiari buruz hitz egingo duena. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

## • Gaur, hilak 19, odol ateraldia

Gipuzkoako Odol Emaleen talde bat Elgoibarren izango da gaur, hilak 19, aurrez deitutako guztiei odola ateratzeko. Ohi bezala, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean egingo dira ateraldiak Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Elgoibarko Odol Emaleen Elkarteak odola ematera animatu nahi ditu18 urtetik gorako guztiak.

## • Euskal presoak euskalerriratzeari buruzko hilera

Datorren asteartean, hilak 23, bilera egingo da Kultur Etxean euskal presoak euskalerriratzearen inguruan. Senideak erakundeak antolatutako bilera da eta gaiak duen interesaz ohartuta, herritar guztiei joateko gonbita Iuzatu nahi diete.

## • Juhilatu Etiteko Batzar Nagusia, hilaren 24an

Datorren asteazkenean, hilak 24, Jubilatu Etxeak 1999 urteko Batzar Nagusia egingo du. Lehen deialdia arratsaldeko 18:00etan izango da eta ordu erdi beranduago, hala behar izanez gero, bigarren deialdia. Biltokiko estatuto berriak, 98 urteko jardueren memoria eta balantze ekonomikoa dira aztertuko diren gaiak.

**ONGARRI zine kluba**



Zuzendaria: Wu Tianming.
Antzezleak: Chuk Yuk, Caho Yim Yin, Zhang Riuyang.

## El rey de las nthscaras (isina)

Txinan, agure batek aktore lanak egiten ditu kalean. Maskarak aldatzeko gaitasun handia dauka.. Gizon bakartia da; emazteak laga egin zuen eta semea aspaldi hil zen. Gizon honen penarik handiena maskaren artea ikasteko oinordekorik ez izatea da. Egun batean Erregeak seme bat adoptatzen du, eta sorpresak gertatzen hasiko dira...

**FARMAZIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 20 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 21 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 22 | Zabaleta | Zabaleta |
| 23 | Bidasolo | Bidasolo |
| 24 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 25 | Anduaga | Anduaga |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
ANDUAGk. Mendarozabal, 1 Garagarza. Te1:943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Te1:943 75 13 84

**OKINDEGIA**

21igandea Fatero

OHARRA: **MerkatuTxikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.**

# Lana

### *ESKAINTZM

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. a 943 74 20 32 (arratsaldeko 19:30etik aurrera)

• Neska behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia 7:30etik 15:30era.
a« 943 74 28 93 (arratsaldez)

• Elgoibarko enpresa batek 18-25 urte bitarteko mutila, soldaduzkatik libre dagoena, euskaraz dakiena, egoera fisiko onekoa, trebea eta gidatzeko baimena duena behar du. Lanpostu egonkorra eskaintzen da. tr 943 74 30 94 (9:30etik-12:30era / 15:00etatik-18:30era)

### *ESKAERA*

• Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. a 943 75 62 57

• Etxeko lanak egin edo lokal, denda eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)

• Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketan esperientziadun neska eskaintzen da.
a 943 74 22 03/943 74 07 07

• Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibar edo Mendaron. Ordutegia hitz egitekotan. ㎙ 943 74 20 94 (Yolanda)

• Erizantzan diplomatutako neska euskalduna pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko eskaintzen da. Etxean edo ospitalean, egunez edo gauez. tr 943 74 27 78 (Itziar)

• Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.
943 74 35 43

• Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta garbiketak egiteko, orduka. Esperientziarekin. s 943 58 40 31 {Elgoibar)

# Bestelakoak

• Katua oparitzen da. Interesatuek deitu 943 74 05 62 telefonora, (Almudena)

• Caritas-ek bi ateko armairua *es*kaintzen du. te 943 74 15 09

• Taberna traspasatzen da.
a 943 74 19 43 (Nekane)

# Etxenizitzak

• Etxebizitza polita salgai. Berritua eta altzariekin, Bemardo Ezenarro lean, okindegi gainean.
tr 943 74 17 95

• Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganhara eta igogailuarekin. tr 943 74 03 83
943 74 18 34

• Etxea behar dut alokairuan hartzeko. Premia handia daukat.
.1l. 943 74 12 21

• Kanpora ernaten duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaldea, saloi-jangela, bi bainugela eta patio-trasteroa. Oso haundia da. Urasandin.
tr 943 74 14 54 (gauez, 22:00-00:40)

• Pisua saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. tr 943 74 31 07

• pisua behar dut alokairuan. Sei hilaheterako. Altzariekin bada hobe. tr 649 03 65 82 (Santi)

# Salerosketak

### ♦SALDth

• 14 "ko pantatta, 10X CD ROMa eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. s 943 74 00 07

• Ur berodun akuario handi bat saltzen dut, osagarri guztiekin. Prezio onean. s 943 74 15 16 (16:30etik aurrera deitu)

• Game Boy-ko jokoak saltzen ditut. tr 943 74 11 85 (16:30etik aurrera deitu)

• Butanoko estufa saltzen dut.
a 943 74 23 90

# Agurrak

• Zorionak Ion Ander Cerroni, hilaren 24an urteak beteko dituelako. Kuadrila guztiaren partez.

* Zorionak Iraixe Osorori otsailaren 18an urteak bete zituelako. Rolo familiaren partez.

• Zorionak Belen Codesali gaur, hilak 19, urteak bete dituelako. Maitasunez Saray eta Eiderren partez.

• Zorionak Naiara Gomezi hilaren 17an 11 urte bete zituelako. Cristinaren partez.

• Zorionak Ekaitz Lasueni gaur, hilak 19, 21 urte hete dituelako. Anaia lgomen, familiaren eta bereziki, Iker eta Unai bikien partez.

♦ Zorionak Eukeneri gaur urteak bete dituelako. Zorionak baita ere Rinori bihar urteak beteko dituelako. Zuek dakizuen neska lilura-garrien partez.

• Aupa Mauxi! Zorionak Julen Ansolari bihar, hilak 20, urteak beteko dituelako. Zure mailako nesken partez, hatez ere zutaz gustatua dagoen neskaren partez, Elgoibarko Fideue!!!

• Zorionak Jon Vieenteri hilaren 23an 14 urte beteko dituelako, Yon eta Sorayaren partez ondo satu eta egun zoriontsua izan dezazula.

• Zorionak Xabi eta Ainhoa Uribeetxeberriari otsailaren 12an eta 15ean urteak hete zituztelako. Eamiliakoen partez.

• Zorionak Belenzu, aspaldian horrelakorik entzun gabe egongo zinen ez! ea asmatzen duzun nor izan garen. Ondo pasau eta ea laister farra hat botatzen dugun.



• Zorionak Abelillo! Hireak egin dik, iritsi haiz treintenara! Lasai. edade honetan gazteen freskotasuna eta beteranoen esperientzia uztartzen (11-tuk eta. Estrellakoak,



Zorionak Asier gaur urreak hete dituzulako. Inauterietan preso jaztea ez zen indirektaren bat izango gure artean hasi berri zarelako, ezta? Estrellakoak.



• Zorionak Naiarari hilaren 17an urteak hete zituelako guraso eta ahizpa Oihanaren partez.



• Zorionak hilaren 22an 7 urte beteko dituelako guraso eta Xabierren partez.



• Zorionak Ander Orbegozort, otsailaren 15ean 6 urte bete zituelako, Nerearen eta familiakoen partez musu handi-handi hat.



• Zorionak gure sorgin txikiari, hilaren 17an 7 urte bete zituelako, familiaren partez.



• Zorionak Yolandari, hilaren 17an urteak bete zituelako. Familia guztiaren partez eta bereziki bere iloharen partez.



• Zorionak Ida, zure '?' urtebetetzean! Baita Itziarri eta Luziari ere. Hiruron zorionak ondo pasa beharra daukagu!!! Muaaaa !!! landi bat lagunen partez.



• Zorionak Lourdes rreri, hilaren 12an urteak bete zituelako. Zure txanpain botilaren zain gaude. Beraz, animo eta ea erregalo sko jasotzen dituzun, nahiz eta gehiegi merezi ez.



• Zorionak Sarari hilaren l6an urteak bete zituelako. Bere familiaren partez.



• Superultra-megaplus zorionak Ane Arakistaini (TakoIo, Pirritx eta Porrotxen jarraitzaile handia) hilaren 20an 4 urte beteko dituelako. Jonatan eta Naiararen partez musu handi pila bat.



• Kaixo txapeldun, gaur lau urte bete dituzulako zorion asko opa dizute zure anaia Ionek, gurasoek eta aiton-amonek.



• Zorionak Mikel Garateri, gaur 3 urte hete dituelako, famiita osoaren partetik. Aitatxo Reardori ere zorionak.

ELGOIBARKO HERRI INSTITUTUAK eta KENSINGTON HIZKUNTZA ZERB1TZUAK HONAKO IKASTAROAK DOHAINIK ESKA1NTZEN DITUZTE

# HOBETUZ DEIALDIA 1999

| IKASTAROAK | Orduak |
|---|---|
| **INFORMATIKA** | |
| Windows 95 | 20 |
| Windows 98 | 20 |
| Microsoft Word 97 | 36 |
| Microsoft Excel 97 | 36 |
| Microsoft Access 97 | 36 |
| Microsoft Power Point 97 | 20 |
| Internet | 20 |
| Web orrien garapena Microsoft Front Page 98rekin | 20 |
| Sare Lokalak Windows NT Server 4.0 Administrazioa | 36 |
| Mezularitza eta taldeko lana Exchange 5.5 eta Outlook 97 | 30 |
| Informatikako ekipoen mantenimendua | 30 |
| Microsoft Project 98 | 36 |
| Microsoft Publisher 97 | 30 |
| **KOMERTZIALA** | |
| Marketing-aren hasiera orokorrak, teknikak eta praktikak | 50 |
| Zerbitzu-enpresentzako Marketing-a | 60 |
| Bezeroak erakartzeko plana egitea | 20 |
| Marketing Zuzena | 30 |
| Marketing plana egitea | 30 |
| Salmentarako teknikak | 30 |
| Merchandising | 20 |
| Kalitatea bezeroarekin, harrera pertsonalean eta telefonikoan | 30 |
| **KALITATEA** | |
| Kalitatearen garrantziaz ohartzea | 20 |
| Bileren gestio zuzena | 20 |
| Kalitatearen Barne Auditoriak | 20 |
| Kalitate Osoko Gestioa | 25 |
| EFQM Kalitate Osoko Eredu europarrera sarrera | 25 |
| Kalitateari buruz Finkatze Sistemak: ISO-9000 arauak | 25 |
| Kalitatea Erosketen Gestioan | 20 |
| Kalitateari buruz eskuliburua egitea | 20 |
| Hobekuntza jarraitua eta lan-talderako tresnak | 20 |

| IKASTAROAK | Orduak |
|---|---|
| **HIZKUNTZA** | |
| INGELES OROKORRA | |
| Oinarrizko maila (2.maila) | 210 |
| Hasi berriak (3. maila) | 210 |
| Ertaina (3. maila) | 210 |
| Goi maila (2. maila) | 210 |
| MODULU ZEHAZTUAK | |
| Ingelesa, esportazioa eta kanpo komertzioa | 30 |
| Ingelesa, harreragile eta telefonistentzat | 30 |
| ingelesa negoziaziorako eta salmentarako . | 30 |
| EUSKARA | |
| Nola hartu telefonoa euskaraz | 20 |
| Nola idatzi txosten ofizial-administratiboak euskaraz | 20 |
| Nola idatzi korrespondentzia euskaraz (eskutitzak, faxak, mailing-ak, ) | 20 |
| BESTE H1ZKUNTZAK | |
| Frantsesa-oinarrizko eta erdiko mailak | 130 |
| Alemana-oinarrizko eta erdiko mailak | 130 |
| Euskara-oinarrizko, erdiko eta goiko mailak | 130 |
| **ENPRESEN ZUZENDARITZA eta ADMINISTRAZIOA** | |
| EUROa. Txanpon berriaren ondorioak enpresan | 20 |
| PYM Eetako direktiboentzat gestio eta administrazioa | 25 |
| Nominak eta Seguritate Soziala (informatizatua) | 36 |
| Oinarrizko Kontabilitatea (ordenagailuz) | 36 |
| Sozietateetako Zerga | 30 |
| BEZ (I.V.A.) | 30 |
| IRPF | 30 |
| **INDUSTRIALA** | |
| Makinen margotze prozesua | 50 |
| Soldadura: hasierako ikastaroa | 50 |
| Soldadura: espezializazio ikastaroa | 50 |

Informazio gehiago jaso eta izena emateko, telefono hauetara deitu:

ELGOIBARK0 HERRI INSTITUTUA
Arregitorre, 2
20870 Elgoibar
943 74 44 80 (Susana Mancisidor)

KENSINGTON HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Pedro Muguruza, 8
20870 Elgoibar
tr 943 74 02 36 ( Isabel Azpeleta)

# GREMIOEN GIDA

b2igadUar91 gida honetan azaldu nahi beJ Lq2 9 clg/qui 1)111.3 VZ 13V CIJ

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
s 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
s 943 74 32 38

**JUARISTI**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana,18
s' 943 74 29 94

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
s 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
Ir 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
s 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
s 943 74 03 96

## ISOLAM 1511TI:\T

**GLAS CONTROL S.L.**
inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
Tr 943 74 30 94

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
z' 943 74 17 61

**JAVI**
Erretxindi, 1
s' 943 74 14 80
s 608 77 29 32

**ONGI**
Urasandi, 8
943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
$' 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
"a" 943 75 50 62
s 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
s 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
943 74 07 89
Tr 608 14 30 40

## PINTURAK

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
17 943 74 04 40
s• 607 74 04 40

**JOSE PINTURAK**
San Bartolome, 28
`E' 943 74 12 55
s 629 44 23 14

**LAU PINTURAK**
San Frantzisko, 42
w 943 74 18 89
s 943 74 06 73

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
2. 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
s 943 74 12 38

**BETI ARGI**
Errosario, 6
s 943 74 16 44

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
s 943 74 13 76

## 326212TilWA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
s' 943 74 34 18

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
s' 943 74 29 87
n17 689 58 47 23

**IPINTZA**
Trenbide, 25
s' 607 41 78 67

iimmumighdrom

1